

## 1. Txosten Prospektiboa



# Etorkizuneko agertokiak

## Justizia Soziala eta Giza Eskubideak



**E**gungo agertoki globalean, polarizazio politikoarekin, azelerazio teknologikoarekin eta klima-krisitik eratorritako erronkekin, justizia soziala eta giza eskubideak inflexio-puntubatean daude. Desinformazioaren zabalkundeak eta gorroto-diskurtsoen gorakadak oinarri demokratikoak kolokan jartzen dituzte, ehun soziala zatitzen dute eta erronka kolektiboek aurre egiteko kohesioa mehatxatzen dute. Txosten honen xedea da identifikatzea zer dinamika globalek izango duten eragina gure tokiko testuinguruan, eta zer estrategia berritzaile erabil ditzakegun giza eskubideak eta justizia soziala babestu eta sustatzeko gure lurraldean, 2040. urteari begira.

Prospekzio-lan horretarako, Deustuko Unibertsitateak eta Alboan Fundazioak ad hoc lantalde bat antolatu zuten giza eskubideei eta justizia sozialari buruz, honako proiektu bateratu honen esparruan: “Euskaditik mundura: hurbilketa kritikoa Euskadiko 2030 Agendara giza eskubideen ikuspegi globaletik”<sup>1</sup>. Taldea hainbat arlotako hogeit hamar pertsona inguruk osatu zuten (sozietate zibila, sektore pribatua, administrazio publikoa, unibertsitateak eta hezkuntza-sektorea), eta hiru lan-saio egin zituzten 2024-2025 ikasturtean zehar. Ezagutzak sortzeko ibilbide kolektibo hori etorkizuneko agertokiak planifikatzeko metodologia egokitu baten bidez garatu zuten. Ezagutza kolektiboki sortzeko ibilbide hori etorkizuneko agertokiak planifikatzeko metodologia egokitu baten bidez garatu zen.

Jarraian, lehen saioan identifikatutako aldaketa-faktoreak aurkeztuko ditugu, baita taldeak aukeratutako bi faktore garrantzitsuenak gurutzatu ondoren aterako agertokiak eta etorkizuneko xede-agertokia lortzeko aplikatu beharreko estrategiak ere. Hau da xedea: guztion ongizatearen inguruan kohesionatutako gizartea, inklusiboa gizaratean eta ekonomian.

## Aldaketa-faktoreak identifikatzea: helmuga 2040

Lehen lan-saioan zehar aldaketa-faktore hauek identifikatu zituzten, eta, partaideen arabera, justizia sozialaren eta giza eskubideen bilakaera baldintzatuko dute Euskadin, gaurtik 2040. urtera bitartean. Aldaketa-faktoreak ekonomikoak, politikoak, sozialak, ingurumenekoak edo teknologikoak izan daitezke, eta horiek aztertzeak joerak, ziurgabetasunak eta etorkizuneko agertokietako eragin potentzialak identifikatzeko aukera emango du.

<sup>1</sup> Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak finantzatuta (proiektu-zk.: PRO-2023K3/0014), Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren laguntzarekin.





| Faktorea                                     | Deskripzioa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|----------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Publikoa babestea                            | Publikoa aldarrikatzea da, guztiona, hau da, ondasun publiko globalak (biodibertsitatea, ingurumena, segurtasuna, etab.). Arlo horretan hainbat eragile esanguratsu dauden arren (enpresak, sozietate zibila...), estatua da betebeharren titular nagusia oinarritzko giza eskubideen bermearekin eta ondasun unibertsalen hornikuntzarekin lotuta (osasuna, hezkuntza, etxebizitza...). |
| Polarizazio soziala                          | Iritzien, jarreraren eta ideologien erradikalizazioa da, eta horien arteko talkak, elkarriketa eta elkarbizitza baketsua ezinezko bihurtu arte. Gorroto-diskurtsoak, berri faltsuak eta konspirazio-teoriak "besteak" estigmatizatzen dute eta etsipena eta desilusia nagusitzea dakarte guztion etorkizunean.                                                                           |
| Teknifikazio hazkorra                        | Garapen teknologikoak aukera ugari ematen ditu aurrerapen sozialerako. Hala ere, boterea enpresa teknologiko handietan pilatzeak eta teknologiarako sarbidearen desberdinkeriak erronka nabarmenak dakartza giza eskubideentzat eta justizia sozialarentzat (arrakala digitala, ideologia-, arraza- eta genero-alborapenak, lehengaien eskaria, etab.).                                  |
| Desberdinkeria eta bazterketa                | Desberdinkeria eta bazterketa (ekonomikoa, soziala, generoarena, teknologikoa...) berdintasunean oinarritutako giza eskubideen aurkako erasoak dira.                                                                                                                                                                                                                                     |
| Giza mugikortasuna                           | Migrazio-politiken segurtasun-ikuspegiak, mugen kontrolean, militarizazioan, kontrolaren kanporatzean eta deportazio beroetan oinarrituta, arriskuan jartzen du giza eskubideekiko konpromisoa.                                                                                                                                                                                          |
| Erronka demografikoa                         | Europako jaiotza-tasa txikiak eta biztanleriaren zahartzeak zalantzan jartzen dute ongizate-estatuaren bideragarritasuna oinarritzko eskubideen bermatzaile gisa. Zaintza eta kontziliazioa funtsezkoak dira: hala ere, lan prekarioen eta migratzaileen eskulanaren mende daude.                                                                                                        |
| Bakerako eta giza segurtasunerako dibidendua | Defentsa-gastuak areagotzeko presioak dilema klasiko bat planteatzen du: segurtasun militarra giza segurtasunaren aurka (giza garapenean eta giza eskubideetan oinarrituta). Gatazka berriek eta erantzun militarrean soilik oinarritutako gatazken konponketak bakearen kultura mehatxatzen du.                                                                                         |
| Espazio zibikoa murriztea                    | Giza eskubideak babesteko espazio publikoa murrizten ari da planeta osoan. Honako hauek arriskuan jartzen dituzte demokraziaren oinarritzko elementuak: lege murriztaileak (GKE-en eta sozietate zibilaren aurka), babesleen kriminalizazioak, informazio-eskubidearen eta protestaren mugek eta gizarte-mugimenduen aurkako ekintza legalek.                                            |



## Etorkizuneko agertoki posibleak

Identifikatutako zortzi aldaketa-faktoreetatik bi aukeratu zituzten, garrantzi handia baitute justizia sozialaren eta giza eskubideen etorkizunerako. Faktore bakoitzaren polo positiboak eta negatiboak identifikatu zituzten, eta, hortik abiatuta, lau agertoki posible eraiki zituzten.

### **Guztiona eta espazio zibikoa babestea**

*Polaritate positiboa:* helburu komunak adostu zituzten, ekintza komuna bideratzeko (adibidez, GJHak gobernu-esparru gisa Euskadin). Parte-hartze soziala, eragileen arteko lankidetzak eta gobernantza-mekanismoak finkatzea funtsezkoa da adostasun horren zilegitasuna bermatzeko eta guztiona eta kolektiboa eraikitzeko.

*Polaritate negatiboa:* indibidualismorako joera sozialak eta polarizazio soziala maila guztietan ari dira hedatzen (tokikoa, eskualdekoa, nazioartekoa), eta, ondorioz, zailagoa da helburu partekatuak finkatu eta guztion ongizatea bilatzea.

### **Askotariko desberdinkeriak eta bazterketa**

*Polaritate positiboa:* Euskadin sarbidea dugu zerbitzu publikoetara, eta, eskubide zibilak mantentzen, askatasun pertsonalak bermatzen dira, kritikarako eta parte-hartze sozialerako espazioa uzten den heinean. Hala ere, oraindik ere badaude desberdinkeria globalak, eta lanean jarraitu behar dugu horiek konpontzeko.

*Polaritate negatiboa:* zatiketa sozialerako eta ghettoak sortzeko joera dago. Duela gutxi arte ongizatea eta egonkortasuna bermatu dituen itun soziala hautsi da.



Bi faktore horiek gurutzatzeak lau agertoki ekarri ditu.



**2. agertokia** (guztionaren defentsa handia eta desberdinkeria txikia) identifikatu zuten desiragarri gisa eta 2040. urterako helburu gisa. Hala ere, egungo unea 1. eta 3. agertokien artean kokatu zuten, hau da: desberdinkeria eta bazterketa geroz eta handiagoak dira, zatiketa sozialerako arriskuarekin, eta, kasurik onenean, soilik eskubideen aitortzen formalaren inguruko azaleko kohesioak salbatzen du (erabilera errealik gabe).

## Etorkizun desiragarria eraikitzeko estrategiak

Hauek dira 2. agertokira hurbiltzeko egin beharreko urrats nagusiak:

### *"Guztiona" babestea*

Guztionaren ikusmolde itxien aurrean ("lehenik gu"), erronka da guztiona definitzea aniztasuna, balio demokratikoak eta inklusio sozialaren aldeko borroka aitortzen.

### *Espazio zibikoa babestea*

Eskubide zibil eta politikoak aldarrikatzea demokraziaren zutabe gisa eta giza eskubideak nahiz justizia soziala babesteko bitarteko gisa.

### *Maila anitzeko gobernantzaren eta elkartasun globalaren aldeko apustua*

Arrisku globalak (klima-aldaketa, migrazio behartuak, epidemiak, etab.) ezin dira jorratu maila nazionaletik. Maila anitzeko gobernantza justu eta bidezkoaren alde egin behar da, nazioarteko eta belaunaldiarteko elkartasun-printzipioetan oinarrituta.

### *Erantzuna publiko eta pribatuaren arteko tentsioari:*

Nahiz eta aitortzen den arazo sozialei espazio pribatuetatik emandako erantzunen zilegitasuna, osagarritasun-moduak bilatu behar dira, publikoaren funtsezko rola gainbeheratu gabe oinarritzko zerbitzuen hornikuntza eta bermean (osasuna, hezkuntza, mendekotasuna...).

### *I2030 Agenda hezkuntza-arloan sartzea*

Hezkuntza-curriculumean GJHak sartzea estrategia garrantzitsua da 2030 Agendaren potentzial eraldatzailea ezagutzera emateko eta konpromiso soziala indartzeko jasagarritasunaren, giza eskubideen eta justizia sozialaren inguruan.

### *Teknologia arduratsua*

Garapen teknologikoa bideratu behar da giza garapen jasagarriaren printzipioetan oinarrituta, inklusioa, herritarren premietara egokitzea eta erabilera arduratsua azpimarratzen (elkarbizitza kaltetzen duten asmo txarreko erabilerak mugatzen).

### *Gazteen parte-hartzea eta belaunaldiarteko erreleboa*

Etorkizun desiragarri hori eraikitzeko hasierako baldintzetako bat da gazteen parte-hartzea eta konpromisoa giza eskubideekin eta justizia sozialarekin. Ikusi beharko da iraultza digital berria gai den gazteen mobilizazioa ahalbidetu eta sustatzeko.



## Aldaketaren protagonistak

Honako hau dira agertoki desiragarria hurbiltzeko identifikatutako eragile nagusiak:

### **Administrazio publikoak (tokikoak, eskualdekoak, erkidegokoak eta estatukoak):**

2030 Agenda ezartzeko konpromisoarekin jarraitu behar dute, askotariko eragileekin aliantzak sustatzen maila anitzeko gobernantza-ereduetan. Egiturazko mugak eta burokratizazioa gorabehera, zerga-politika justuaren alde egin behar da, kohesio sozialeko politikak finantzatu ahal izateko.

**Enpresa-mundua:** enpresak arduratu behar dira ongizatea sustatzeaz dagokien lurraldean, enpresen arloko nazioarteko ardura-gidalerroak aplikatzen gai sozialetan eta ingurumenean. Ezin dugu ahaztu Euskadin sektore kooperatiboak duen indar handia. Hausnarketa kritikoa egiteaz gain, lankidetzaren publiko-pribatuaren aukerak eta potentziala aztertu behar dira, arlo ekonomiko eta sozialean (hirugarren sektoreko enpresak). Eragileen arteko aliantzak funtsezkoak dira GJHak sustatzeko.

**Sozietate zibila:** Euskadin ehun sozial sendoa dugu GJHak lortzeko arlo garrantzitsuenetan. Kausa sozialak jorratu behar dira intersektorialitatean oinarrituta, parte hartzeko modu berriak irekitzen. Zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboaren auto-antolakuntza gaitasuna landu behar da (migratzaileak, desgaitasuna duten pertsonak, baztertutako pertsonak...), ikusgarritasuna lortzeko eta haien eskubideak hobeto babesteko.

**Hedabideak eta sare sozialak:** Giza eskubideei eta justizia sozialari buruzko kontakizunak sortzeko, hedabide tradizionalak eta plataforma digitalak ezinbestekoak dira, nahiz eta haien rola anibalentea izan daiteken.

**Akademia:** Ezkutatua gelditzea ekiditeko eta konpromiso zibikoa eguneratzeko, unibertsitateek ekimenak sustatu behar dituzte ezagutzen sorrera erronka sozialen konponketarekin lotzeko, esate baterako 2030 Agendan jasotakoak.







Hauek finantzatu dute:

